ek!
...eta kitto!
Euskara Elkartearen astekaria
2020ko ekainak 26 · 1148. zenbakia



# HURRENGOAN GEHIAGO



sukaldeak

URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua
dica

www.urrategiinteriorismo.com
Arragueta 27
20600 Eibar
Arretxe 9
20730 Azpeitia

katalogoak
aldizkariak
liburuak
agendak
gida komertzialak
liburuxkak
kartelak
...

gertu
inprimategia

zubillaga industrialdea, 9 • oñati • tfnoa. 943 783309 fax: 943 783133 • gertu@telefonica.net



# Eskutitzak

## Historiarako gordeko ditugun Sanjuanetako irudiak

Inoiz baino San Juan jai motzenak izan dira, baina ez ditugu sekula ahaztuko. COVID-19ak ia ekintza barik laga ditu herriko jai nagusiak eta eibartarrak festarako gogoz egon badira ere, kaleek ez dituzte urteroko kolore eta giroa erakutsi.

Hain zuzen ere horregatik izango dira historiara pasako diren Sanjuanak eta guk, nahiz eta aurten jaietako irudiekin osatzen dugun BIXAMONA aldizkaria ez argitaratu, egin diren ekintza urrien argazkiak bildu ditugu.

Aldizkari honen erdialdean 2020ko Sanjuanen irudi esanguratsuenak dituzue ikusgai eta, ekintza bakoitzaren eta herrian bizi izan den giroaren argazki gehiago ikusi nahi izanez gero, **www.etakitto.eus** web orriko MEDIATEKAn Sanjuanetako argazki-bildumak aurkituko dituzue.

Bixamona arin pasata, 2021eko Sanjuanei begira jarri gara dagoeneko. Hurrengoan gehiago.

**Erredakzioa**

# Astean esanak

“Gerra edo epidemia gertatuz gero, manufaktura industria sendo baten jabe ez den herrialde bat benetan sendotzat jo behar dugu? AEBk eta mendebaldeak ahalmen zientifiko eta teknologiko handia eduki arren, ez daukate modurik horiek gero maila masiboan produktu bihurtzeko. Mendebaldeak gutxienez hamabi hilabete edo agian bi urte beharko ditu bere ekonomia eta bere traumak konpontzeko. Prozesu horretan Txinari erruak egoztea alferrikako denbora galtzea izango zaio. AEBk beren arazoak ezin konponduz, besteak bihurtu nahi dituzte errudun. Indartsuak zirenean, inork aurpegiratu al zien hiesa zabaltzea? Edo. I. Mundu Gerran bere tropek gripea Europara eraman izana? Txina indartsua baldin bada eta bere produkzio ahalmena sendo atxikitzen badu, inork ezingo dio eraso”.

**QIAO LIANG, jeneral txinatarra**

"Konspiranoiek arrakasta daukate. Agian, benetako konspirazio eta jukutriaz -ekonomiko, geoestrategiko eta abarrez- beteriko munduan bizi garelako. Albiste faltsuak arin zabaltzen dira, bai. Agian guztiz egia ez diren edo, behintzat, alde bakar baten egia interesatuak entzun eta irakurtzera ohiturik gaudelako. Arrakasta daukate, bai, agian inguratzen gaituen mundua kontrolaezina delako. Eta kontrol sentsazio horri eustearren, errudun argiak eta azalpen errazak nahiago ditugulako. Eta, arrazoi berberagatik, kasualitatea trabesten zaigu eta kausalitatea hobesten dugu. Seguruenik ez genuen ikasi posibilitatea eta probabilitatea ondo bereizten ezta, zerbait ulertzen ez dugunean, horrek ez duela gure ezjakintasunetik baino haragokorik adierazten ere”.

**SONIA GONZALEZ, idazlea**

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MUSTURRALDI.-** Lagun biren artean noizik behin sortzen den haserre aldia. “Alperrik ezkon barri, mustur-aldixa darabixe gaur”.

**MUSTURRETAKO.-** Ezpain aldean emandako ukabilkada. “Musturretako galanta hartu eban adar kontua aittatu zetsanian”.

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA**
...eta kitto! Euskara Elkartea
**HELBIDEA**
Urkizu, 11. 20600 Eibar
**TELEFONOAK**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
**FAXA** 943 20 28 72
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
**ELKARTEAREN E-MAILAK**
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**
Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi eta Silbia Hernandez
**ADMINISTRAZIOA**
Marisol Uriarte
**KOORDINATZAILEA**
Ana Aizpurua
**ERREDAKZIO-BURUA**
Silbia Hernandez
**DISEINUA**
Maku Oruezabal
**MAKETAZIOA**
...eta kitto! astekaria

**ARGAZKI ARLOA**
Malen Jainaga eta Malen Illarramendi
**HIZKUNTZA ARDURA**
Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri
**PUBLIZITATEA**
Itziar Albizu eta Belen Ulazia
**TELEFONOA**
943 20 67 76
**AZALEKO ARGAZKIA**
Malen Jainaga
**BANAKETA-ARDURA**
Idoia Labado

**TIRADA**
7.780 ale
**INPRIMATEGIA**
GERTU koop. (Oñati)
**COPYRIGHT-A**
...eta kitto!
**LEGE-GORDAILUA**
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

*(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)




# Sarek kalejira eta material salmenta antolatu ditu

>>> Gaur ekaineko azken barixakua dela eta, Eibarko Sarek hileroko ekitaldiari ikutu berezia eman nahi izan dio: "Arratsaldeko 19:30ean, Untzagatik abiatuta, kalejira alai eta koloretsua egingo dugu. Maskarak jantzita, bi zutabetan eta distantzia zainduta, herriari buelta emango diogu eta musika pixka bat ipiniko dugu". Kalejira hasi baino lehen, arratsaldeko 18:00etan, Untzaga inguruan mahaia jarriko dute, Izan Bidea dinamika jendeari azaltzeko eta informazioa emateko. Horrekin batera, kamisetak, besokoak... ere izango dituzte salgai. Sareko ordezkarien berbetan, "martxan jarri dugun dinamika aktibatzailea izan dadin nahi dugu. Izan ere, guztiok izan behar dugu bide; etxerako, bakerako eta elkarbizitzarako bide".

# Aldatze kalea itxi egingo dute astelehenetik eguaztenera bitartean, kata batzuk egin ahal izateko

>>> Udaltzaingotik jakinarazi dutenez, astelehenetik eguaztenera Aldatze kalea itxi egingo dute eta ezin izango da Jardiñeta kaletik San Juan eta Untzaga kaleetara sartu. Edateko uraren kanalizazioa non dagoen egiaztatu ahal izateko, kata batzuk egiteko itxiko dute kalea: "Kata horiekin obrak egin daitezkeela egiaztatzen bada, edateko uraren kanalizazioa ordezkatzeko lanekin jarraituko dute, uztailaren amaierara arte".

# 'Gaur gurian' saioaren azken atala Eibarren grabatu dute

>>> Eneko Sanchez eta Ander Edok sortutako 'Gaur gurian' saioak agur esan dio denboraldiari eta azken kapitulua orain dela egun batzuk eman zuten euren YouTube kanalean. Ia ordu erdiko saioa Eibarko hainbat tokitan grabatu dute eta, besteak beste, ...eta kitto!' aldizkariak Eneko Sanchezi egindako elkarrizketak izan du zeresana.



CBL
Cristina Baz Larrañaga
ABOKATUA

Lege-aholkularitza gaurkotuena eskaintzen dizugu
zure kasua sakon aztertu eta irtenbide onena emateko

Fermin Calbeton, 4 - 3. esk. (Untzagako dorrean)
www.cristinabaz.com
telefonoa: 943 12 80 55
cristinabaz@icagi.net



## Sei asteko iraupena izango duten asfaltatu lanak hasi dituzte

>>> Astelehenean hasi zituzten aurreko urtean adjudikatutako asfaltatze-lanak. Udalaren arabera, "lan horiei esker, Eibarko bederatzi kaletako zorua berritu ahal izango da. Beharrok 12.000 metro koadro inguruko azalera hartuko dute guztira eta lanik garrantzitsuena Iturburu ikastolarako sarbidean egingo da. Bertan, Arrateko bidetik ikastetxera doan errepidean, ia 3.000 metro karratu asfaltatuko dira. Horrez gain, Urki Kurutzekuan 1.188 metro karratu asfaltatuko dira eta Elgetako errepidearen 1.660 metro karratu baino gehiago ere berrituko dira, Ipuruako foballzelaiaren atzeko aldearen eta kiroldegiaren artean".

Lanak Arraterako errepidetik Iturburu ikastolara doan bidean hasiko dira egiten, eta sei astez jardungo dute Elgetarako errepidean eta Urki Kurutzekua, Polonia Etxeberria, Armagin, Bista Eder, Urki, Bidebarrieta eta Untzaga plaza kaleetan. Asfaltatze-lan hauen kostua 231.231 eurokoa da (BEZ barne) eta Excavaciones y Transportes Orsa enpresak egingo ditu.

## Astelehenean zabaldu zituzten haurrak jolasteko parkeak

>>> Astelehenaz geroztik haurparkeak zabalik daude. Gure herrian 40 jolas-parke daude guztira, hainbat gune eta auzotan banatuta. Koronabirusarengatik itxita egon eta gero, parkeak berriz erabiltzen hasi direla eta, Udalak dei egiten die "gurasoei edo adin txikikoak euren kargu dituzten pertsonei, arduraz jokatzeko". Azaldu dutenez, hainbat segurtasun eta higiene-neurri hartuko dira: instalazioak aldiro desinfektuko dituzte, erabiltzaileen arteko tartea zaindu beharko da eta, horretarako aukerarik ez dagoenean, maskarillak erabili beharko dira. Gainera, Udalak dioenez, "lagun asko elkartzea saihestu beharko da". Haur-parkeez gain, astelehenetik zabalik daude aire librean ariketak egiteko makinen instalazioak, hain zuzen ere, Amañan (Berdintasunaren pasealekua) eta Azitainen daudenak.

Bestalde, Polonia Etxeberrian (Rioja tabernaren parean) dagoen haur-parkea osorik berriztu dute (zorua barne) eta, besteak beste, ziburu-zaura eta txirrista berriak jarri dituzte. Eta Ubitxako parkean kirola egiteko makina berriak ipini dituzte.










# Ohiko bisita gidatuak eskaintzen hasi dira berriz Geoparkean

>>> Geoparkean ohiko bisita gidatuak eskaintzen hasi dira. Guztira 17 bisita gidatu desberdin daude aukeran, adituak diren gidarien azalpenekin lagunduta, Geoparkea ezagutu eta deskubritzeko, oinez zein itsasontziz. Bisita gidatuak euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen dira, eta eskaera gehien dutenak ingelesez, frantsesez eta alemanez ere, webgunean deskargatzen diren audio giden bitartez.

Aurtengo osasun krisi egoera kontuan hartuta, irteera guztiak COVID-19 protokoloetara egokitu dira, beharrezko segurtasun neurri guztiak bermatzeko. Horregatik, irteera gidatuen erreserba on line egitea gomendatzen da www.geoparkea.eus webgunean. Hala ere, edozein zalantza argitzeko, hiru turismo bulegoak zabalik daudela gogorarazi dute. Bestalde, proposamen hauek guztiak bisita gidatuen liburuxka berrian daude jasota. Liburuxka eskuragarri dago, eskatuz gero, Euskadiko turismo bulego eta hotel nagusienetan.

# LGTBI eguna etxean eta sare sozialetan ospatzeko deia




>>> Domekan (ekainak 28) LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna gogoratuko da mundu osoan, baita Eibarren ere. Beste batzuetan Untzagan bandera igota eta hainbat ekitaldirekin ospatu da, baina, aurtengo egoera berezia dela eta, Andretxea-Berdintasun Zerbitzuak etxetik gogoratzeko dei egin nahi die herritarrei: "Ortzadarraren koloreekin LGTBI kartelak egitera animatu nahi zaituztegu, balkoiak eta leihoak harrotasunez betetzeko eta sare sozialetan partekatzeko".

## Pentsiodunek mobilizazioekin jarraituko dute



>>> Asteroko moduan, astelehen honetan ere Untzagan kontzentrazioa egin zuten Eibarko pentsiodunek, pentsio duin eta publikoak eskatzeko. Udan sartu garela eta, asteroko ekitaldiarekin jarraitu ala ez bozkatu ondoren baietz erabaki zuten. Beraz, uztailean ere astelehenero batuko dira, 11:30ean.

FUNEUSKADI Grupo Asistea
FUNERARIA MUGICA Funeuskadi


24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com
Eibar: Otaola, 27
Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16
Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

LEGE AHOLKULARITZA
Gaurve
AUDITORIA
Tfnoa. 943 202 461 Faxa. 943 201 125
Fermin Calbeton, 13-15 www.gaurve.es



# Feliciano Castrillo Ortuoste argazkilaria hil da

>>> Donostian hil zen astelehenean, 84 urterekin, Feliciano Castrillo Ortuoste argazkilari ezaguna. Batez ere aurreko mendearen azken erdialdean gure herrian gertatutakoaren berri eman zigun, bere argazkiekin eta eibartarroi egindako erretratu askorekin. Horietako gehienak Julian Etxeberria kalean izan zuen estudioan egin zituen. Familiatik zetozkion zaletasuna eta ofizioa Felicianori, aurretik ere bere aitita Romanek eta bere aita Felicianok lanbide horretan jardun zutelako. Berak eurekin batera, oso gazte zela hasi zuen bere ibilbidea gure herrian. Argazkilaritzan Eibarren aitzindari izan den familia horretako hirugarren belaunaldiarekin amaitu zen etapa hori, 1994ko abenduan eta, handik hiru urtera, berak eta familiakoek egindako argazkiekin Castrillo Ortuoste Fondoa eskaini zion Udalari Felicianok. Udal Artxiboan landu ziren azken mendeko argazki mordoa batzen zuen bildumako irudiak eta, geroago, 2002an fondo hori jasotzen zuen "Eibar Argipean" liburua kaleratu zuen Ego Ibarra batzordeak. Liburuan argitara emandako irudietan gure herriaren eta herritarren 100 urteko historia dago islatuta.

## AUTUAN

### AZITAINGO MEZAK

Domekakoa udako azken meza izango da Azitaingo elizan. Hala ere, abuztuaren 15a Andra Mari eguna dela eta, meza egingo da, 11.00etan.

### ZIG GELAKOEK BIDEOA EGIN DUTE

Kurtsoa agurtu aurretik, Eibar BHI-ko Zeregin Ikaskuntzako Gelako (ZIG) ikasleen konfinamendu garaiko argazki eta erronkekin bideo ederra sortu eta gu guztiorekin partekatu dute, "Hezkuntza sailarentzat, beste askorentzat bezala, konfinamendu guztian existitu ez diren ikasleak" itxialdia nola igaro duten ikusteko. Denok bezala tarteka gaizki pasatu duten arren, bideoko irudiak ikusita argi dago irudimena eta umorea soberan dituztela.



giltzak
SEGURIDAD
943 70 13 91
Arragueta Kalea, 3
giltzak@giltzak.com
www.giltzak.com







Zatoz eta informa zaitez!


Sanjuanak 2019
Dultzaineroak


San Juan Sua


Musika kontzertua


Kale-antzerkia


Danborrada


Erraldoiak


Euskal Jaialdia


Herri-bazkaria

**TANTAKA '4ECO'** • Xaboi eta gai ekologikoak

# "Natura eta gure gorputzak zaintzeko produktuak ditugu"

TANTAKA erosketa filosofia berri bat da. Naturarentzat eta pertsonen osasunarentzat onuragarria. 'Berrerabili, birziklatu, murriztu' da euren goiburua, TANTAKAko **Ziortza Ulazia**k azaldu digunez. Juan Gisasola kaleko 6an dago garbiketa eta higiene pertsonala modu jasangarrian lantzeko aukera ematen digun gune berria.




**Zer da TANTAKA?**
Lehengora bueltatzeko aukera ematen duen denda da. Gure planetan demaseko arazoa dago plastikoaren erabilerarekin, itsasoak oihuka daude, eta plastikoaren erabilera murrizteko eta bizitza berria emateko asmoz, naturari min gutxien egiten dioten produktuak eskainiko ditugu. Erosketa jasangarria eta osasungarria bultzatzen dugu.

**Sasoi honetan are gehiago?**
Azken hilabeteotan Zaldibarren eta COVID-19arekin gertatu dena ikusita, jendeari natura eta gure gorputzak zaintzeko produktuak eskaintzeko behar handiagoa ikusi dugu. Gure bizitza birpentsatu behar dugu eta mundu bakarra dugulaz jabetu. Aldatzeko momentua da, ez dugu atzera bueltarik.

**Gure erosketa ohiturak aldatu behar ditugu?**
Erosketa ohiturak aldatzearekin bakarrik zaila da mundua aldatzea, baina bakoitzak bere tantatxoa jarriz gero mundua zaintzeko kontzientzia zabalduko dugu inguruan gutxienez. Ez da erraza ohitura berrietara ohitzea, baina erraztasunak emango ditugu aldaketa gerta dadin. Adibidez, erosketa handia eginez gero, etxez etxeko zerbitzua eskainiko dugu.

**Nolako produktuak aurkitu daitezke TANTAKAn?**
Garbiketarako eta higiene pertsonalerako produktuen eskaintza zabala dago. Biodegradagarriak, ekologikoak, gertukoak eta animalietan probatu gabekoak produktuak. Berriak eta orijinalak. Onak dira guretzat, kalitatezkoak direlako; eta baita naturarentzat ere. Batetik, '4eco' markako etxeko garbiketarako eta arropa garbitzeko produktuak eskainiko ditugu. Ontziak, lurra, komunak eta kristalak garbitzeko produktuak, orban-kentzekoak, arropa zuriarentzako xaboi espezifikoak... Eta bestetik, higiene pertsonalerako produktuak ditugu. Xaboiak eta xanpuak, kremak, hortzetako pastak... Adibidez, bidaiatzeko ohitura dutenek hortzetako pasta piluletan erosi ahal izango dute. Murtxikatu eta kitto. Gainera, uda sasoian sartu garenez, eguzkitako krema ere eskaintzen dugu jaio berrientzat, haurrentzat eta helduentzat.



**Garbiketa produktuak ontziratu gabe eskainiko dituzue. Nola funtzionatuko du?**
Bakoitzak bere ontzia ekarriko du eta guk bete egingo dugu erosleak nahi duen kantitatean, bere beharren arabera. Bezeroak eramaten duena ordaintzen du eta pote horri bigarren bizitza bat ematen zaio. Birziklatu beharrean, berrerabili egiten da. Gainera, garbiketa produktuak bezeroen nahien arabera egokitu ditzakegu, gustatzen zaien esentziak emanez.

**Gertuko produktuen aldeko apostua egin duzue. Zergatik?**
Gertuko produktuak eskainiko ditugu, ahal den neurrian. '4eco', adibidez, Gasteizkoa da. Inguruko ekoizleak babesteaz gain, ahalik eta aztarna gutxien uzten saiatzen gara. Gertuko produktuak erabiliz gero, aukera gehiago izango dugu inguruan produktu jasangarriak eta osasungarriak edukitzeko.

zarelakogara

<<< ...eta kitto! Euskara Elkartea >>>

# “Eta joan dira Sanjuanak ere...”

Tantanez-tantan, Euskal Jaia eta beste hainbat ekitaldi joan zaizkigun bezala, joan dira Sanjuanak ere. Honezkero onartzen hasiak gaude Arraterik ere ez dugula izango, eta Sagardo Egunik ez dela ospatuko 2020an...
Denoi egiten zaigu gogorra jaiak eta ospakizunak atzean lagatzea. Tristea da, baina sarritan falta somatu arte ez gara konturatzen galdu dugun hori zenbat behar dugun.

Aurten, autotxokeetako zaratarik ez dugu entzun, dultzaineroekin batera Estaziñotik Untzagara ez gara joan, Liskerren kontzertuaren aurrez-aurreko berotasunaz ez dugu gozatu, Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatutako herri-bazkariko primerako giroa ez dugu dastatu, San Juan suaren xarmaz eta dantzari zein omenduen emozioaz ez gara busti, Euskal Jaialdiko aizkolari zein harrijasotzaileen esfortzuarekin ez dugu disfrutatu, Kokeinen kontzertuan ere ez dugu arimaz kantatu... eta ohartu gara hori guztia behar-beharrezkoa dugula!

**Jaiek helburu sozial oso garrantzitsua izan dute eta dute.** Gizakiaren historian betidanik topatu izan ditugu jaiak, kultura eta sasoi guztietan, eta urteko datarik esperoenetarikoak izaten dira. Pertsona guztien elkargune bilakatzen dira, erlazioak egiteko eta estutzeko momentuak dira, HERRIA egiteko momentua azken finean, kohesiorako unea.

Era berean, jaiek, pilatutako tentsioa askatzeko (alor psikologikoa) balio izaten dute eta kontsumoa (alor ekonomikoa) bera ere ahalbideratzen dute. Aurtengoan nahikoa tentsio pilatu dugu eta pilatzen jarraitzen dugu, baina ez dugu askatzeko aukera askorik izan. Inoiz baino premia handiagoa dugu, baina horretarako aukerarik ere ez dugu izango.

...eta kitto! Euskara Elkarteak ulertzen du, eta onartzen du jaiak eta jende pilaketak saihestu behar direla, baina guretzat hain garrantzitsuak diren elkarlana, kohesioa, herria egitea eta alor ekonomikoalantzea ezinbestekoak direnez, aurrera egiteko alternatibak topatzea nahitaezkoa da.

**“*Egiteke* jartzen duen kajoian sartu ditugu egin gabe gelditu diren ekitaldiak, baina, ezin jakin, datorren urtean ere zein egoeratan egongo garen”**

Hainbestetan esan izan dugun bezala, urte bereziki gogorra izaten ari da eta une benetan latzak bizi ditugu, osasun zein ekonomia alorretan. Baina, tamalez, hau guztia ez da amaitu... Datorren urtean egingo diren esperantzarekin, “egiteke” jartzen duen kajoian sartu ditugu egin gabe gelditu diren ekitaldiak, baina, ezin jakin, datorren urtean ere zein egoeratan egongo garen, eta bizirik irautea lortuko ote dugun edo geu ere bidean gelditzko ote garen.

Sagardo egunean elkarlanean aritzen **ZARELAKO gara** gai Sagardo Egun arrakastatsua antolatzeko, zapia ipinita gure taldekoa **ZARELAKO gara** elkarte handi eta anitza, tonbola egunean bole-



toak erostera hurbiltzen **ZARELAKO gara** kapaz urteko jarduna aurrera ateratzeko, San Juan suan ikustean emozionatzen **ZARELAKO gara** elkarte bizia...

...eta kitto! Euskara Elkarteak garatzen dituen egitasmoekin eta burutzen duen funtzio sozialarekin bat egiten baduzu, zure ekarpenak edo bazkidetzak ibilbidea luzea izan dezakeela gogorarazi nahi dizugu, gure bazkidea **ZARELAKO gara** elkartea. ■

| NORK | EKARPENA | ERRENTAN ITZULKETA | BENETAKO KOSTUA |
|---|---|---|---|
| Umeak (16 urtetik beherakoak) | 5 € | 1,5 € | 3,5 € |
| Ikasle, langabetu, jubilatuak | 15 € | 4,5 € | 11,5 € |
| Langileak | 45 € | 13,5 € | 31,5 € |
| Beste ekarpen batzuk | 150 € | 45 € | 115 € |

## zueiesker...

Eibarko jaien egitarauan parte hartzen du aspalditik ...eta kitto! Euskara Elkarteak: Aratosteetako pregoia eta play-backa (aurten Zaldibarko hondamendiaren ondoren bertan behera laga genituenak), San Juan sua eta Euskal Jaialdia, Arrateetako bertso- afaria eta kittonbolia, San Andres Bertso-Paper Lehiaketa eta izen bereko bertso-jaialdia; horiek ere bertan behera gelditu dira edo geldituko dira ziur asko, eta elkartearentzat hain garrantzitsuak diren kohesioa, elkarlana... hitz batean esanda, **herringintza** ezingo ditugu egin.

Baina badaude beste era bateko jaialdi edo jarduerak ere, herriko jaietan zein bestela antolatzen ditugunak, eta guretzat alderdi biak ustartzen dituztenak: batetik, herrigintza lantzea, eta, bestetik, alor ekonomikoa jorratzea.

Aurten ezingo dugu tonbolarik jarri Arrate egunean, ezingo dugu Sagardo Egunik ospatu, agian ezingo dugu pailazoen emanaldirik antolatu, ez dakigu gabonetako otarra zozketatzerik izango dugun... Baina, jakin badakigu, gaur egun erakundeetatik euro bakar bat ere ez dugula jaso, publizitateko sarrerak inoizko txikienak direla **eta zuen bazkidetza edo aportazioak direla elkarteak bizirik irauteko duen modu bakarra.**



"Egiteke" idatzita duen kajoi horretatik sanjuanak, arrateak, sanandresak, sagardo eguna, kittonbolak... aterako ditugula amesten dugu eta momentu hori heltzen denean, eta helduko da, lehen bezala eskutik emanda aurrera egingo dugula sinisten dugu. Gure oinarria **ZARELAKO gara** herria.



# Agur biribila eman diote guraso berbalagunek ezohiko ikasturteari

Aurreko astean agurtu zuten aurtengo ikasturtea Berbetan eta Gurasoak Berbetan programetako parte-hartzaileek. Eguaztenean Berbetanekoen txanda izan zen, eta eguenean, berriz, guraso berbalagunei eta haien familiei eskaini zien ...eta kitto! Euskara Elkarteak ikasturte-amaierako jaia. Askotxo zirela-eta, kanpoan egin zuten ekitaldia, segurtasun-neurri guztiak zaindu ahal izateko.

Lehenengo eta behin, konfinamendu-sasoian bingoan parte hartu zutenek sariak jaso zituzten; ekintza ugari eskaini die ...etakitto!-k guraso berbalagunei itxialdian geundenean, hala nola, ipuin kontalari saioak, magia-ikuskizunak, sukaldaritza... baina bingoa izan da, zalantzarik gabe, arrakastatsuena. Pantailaren atzean astero-astero elkartzen ziren familiak, kartoiak eskuan, bolatxoetako zenbakiari adi. Pozarren jaso zituzten ondo merezitako sariak.

Sariak jaso eta gero, hainbat jolas dibertigarri egin zituzten, eta, azkenik, gorputza astindu ondoren mokadutxo goxoa jan zuten. Azken hilabeteetan ezin izan dute aurrez aurre elkartu eta bazuten elkarri zer kontatu. Jai giro ederrean irailera arte agur esan zioten egitasmoari, udako oporretatik bueltan indartsu ekingo baitio ...eta kitto!-k ikasturte berriari. Gurasoak Berbetan euskara praktikatu nahi duten gurasoei zuzendutako programa da, eta aisialdian eta giro lasai eta informalean euskaraz hitz egiteko aukera paregabea eskaintzen die: parkean, eskola kanpoan, taberna batean zerbait hartzen duten bitartean... Ekintzetako asko seme-alabekin batera egiten dituzte: eskulan-tailerrak, txangoak... eta guztiak dira doan. Egoerak uzten badu, behintzat, egitarauan aurreikusitako guztiak egitea espero du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. ■

GURASOAK BERBETAN







# Normaltasuna berreraikitzen

Aro berria hasi dugu. Iragana oroitzapenen kutxan gorde eta arau, baldintza, beldur eta itxaropen berriekin egiten diogu aurre orainaldiari eta etorkizun hurbilari. COVID-19ak eragindako osasun-krisiak gogorarazi digu ezer ez dela segurua, aldaketa handiak gertatu daitezke egun batetik bestera, eta egunez egun bizi beharko dugu aurretik duguna.

Asteburuan ezarri zen 'normaltasun berria' edo 'Bizi Berri' egitasmoa, agintariek sasoi hau janzteko erabilitako berba. Atzean geratu dira alarma-egoera, etxetik irteteko debekuak, txaloak, kaleak hutsik eta autorik gabeko errepideak. Hasierako izuak lasaitasun arduragarri bati eman dio lekukoa. Izan ere, kasuak jaitsi arren, koronabirusa ez da desagertu eta, berragertzeak ahalik eta gehien ekiditeko, baldintzatuta egin beharko dugu gaixotasunaren sendagaia edo txertoa aurkitu arteko denbora.

Azken hilabeteotan asko hazi da maskaren erabilera eta hemendik aurrera ere soinean eraman beharko dugu, gure artean metro eta erdiko distantziari eusteaz gain. Garraio publikoan aspaldi da derrigorrezkoa maskaren erabilera, baina kasu honetan nobedadea da %100 jarriko direla martxan zerbitzu publiko guztiak.

**Kultura eta aisialdia**

Ostalaritzari, turismoari, merkataritzari eta elkarteei dagokienez, lokaletan ez da afororik egongo, baina metro eta erdiko distantzia zaindu beharko da. Buffet eta kokteletan, adibidez, 25 lagun batu ahal izango dira. Hoteletan, bestalde, eremu komunak irekiko dira edukiera mugarik gabe.

Dagoeneko hasi dira lehen kultur ekitaldiak eskaintzen, baina ikus-entzuleek eserita egon beharko dute, aurrez izendatutako tokietan. Gaueko aisialdiko lokalei eta dantzalekuei dagokienez, bestetik, dantzalekuak zabaldu egin ahal izango dira, baina mahaietan eserita egon beharko da.

Kasu horretan museora joatea aukera ona izan daiteke, nahiz eta areto bakoitzean %60ko edukiera errespetatu beharko den. Liburutegietan ere edukiera berari eutsi beharko zaio, baina ohiko zerbitzua eskainiko da.

**Arau, baldintza, beldur eta itxaropen berriekin egiten diogu aurre orainaldiari**



**Kirola publikoarekin**

Foballeko lehen eta bigarren mailako ligak orain dela aste batzuk jarri ziren martxan publiko barik, baina 'Bizi Berri' egitasmoan zehazten denez, EAEn egiten diren kirol-ekitaldietan publikoa egon ahal izango da. Aire librean, gehienez, 1.000 lagun; eta leku itxietan 300 lagun gehienez, edukiaren %60 errespetatuta. Aste honetan, adibidez, pilotazaleak Astelena frontoira joan ahal izan dira Masters Caixabank txapelketaren lehenengo jardunaldia ikustera.

Kirola egiteko, Eibarko Kirol Patronatuak zehaztu bezala, hitzordua hartu beharko da instalazioak erabiltzeko (Patronatuaren webgunean aurkitu daitekeen aplikazio baten bitartez edo 647 87 07 51 telefonora deitutta edo WhatsAppez). Unbe kirol-gunea zabalik dago honezkero eta eguaztenean zabalduko dituzte kanpoko igerilekua eta Orbea kiroldegia. ■



Arantza Alvarez

Arantza Alvarez

# Larruazalaren gosea

Distantzien eta gelen, maskaren eta eskularruen sasoi arraro honetan, bada gure ohituretatik desagertu den zerbait: besarkada. Oraindik lasaitasun osoz bizitzea falta zaigu kontaktu bero eta kontsolagarri hori, beste pertsonarekiko bat-egite hori, hurbiltzen eta kontsolatzen gaituena, animatzen eta pozten gaituen besarkada...

Izaki sozialak gara, eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, gure kideekiko harremana behar dugu, giza beroa. Bestela, larruazal-gosea izango dugu ("skin hunger" ingelesezko esamoldea da, haurren garapenean ukipen afektiborik ez egotearen ondoriozko gabezia emozional eta kognitiboena).

> **"Bero afektiborik gabe, neuronen garapena ez da behar bezala osatzen. Azala ukitu behar dugu, eta beste pertsona batzuek ukitu behar gaituzte"**

Ez dago ingelesezko terminorik erabili beharrik hori azaltzeko: jaiotzen garenetik behar ditugu besarkadak eta laztanak, gure oinarrizko zainketen barruan. Kontaktu fisikoa ezinbestekoa da gure osasuna garatzeko; hala, garunaren hazkundea eta heltzea estimulatzen dira. Bero afektiborik gabe, neuronen garapena ez da behar bezala osatzen. Azala ukitu behar dugu, eta beste pertsona batzuek ukitu behar gaituzte.

Orain gabezia-garaian gaude, baina lagunekin elkar besarkatzea komeni ez denez, etxekoak gehiago besarkatzen saiatuko gara (badirudi, batzuetan, zenbat eta hurbilago, orduan eta kasu gutxiago): seme-alabak, gurasoak, bikotekidea...

Besarkada bat, laztan bat, besterik gabe... Harira etorri gabe, keinu bero horrek dakarrena besterik bilatu gabe, asko da-eta... Jasotzeak besteak maite gaituela eta berarentzat garrantzitsuak garela sentiarazten digu; emateak, berriz, samurtasuna eta maitasuna adierazten laguntzen digu, hitzik gabe.

Askoz gehiago laztan erotikoa bada... Pertsona berri baten larruazala aurkitzea, maite dugunaren larruazala berriro aurkitzea... Batzuetan zer denbora gutxi ematen diogun horri, baldintzatzen gaituen premia genital horrekin...

Eta azken ukitu gisa, gure gorputzen autoezagutza... Presarik gabe, gure mapa erogeno pertsonala marraztu, gure anatomiaren zati bakoitza protagonista balitz bezala zaindu... Ukipen-poesia.



Jon Mikel Mujika

Jon Mikel Mujika

# 15 urte bertsotan

2005. urtea zen astegun arrunt batean nere lehengusuaren ustekabeko deia jaso nuenean. Eibarren bertso eskola martxan jartzeko lehen pausoak eman nahi zirela esan zidan eta ea hasierako bileretan parte hartzera animatuko ote nintzen. Oraindik gogoan ditut sabelean sentitu nuen zirrara eta eman nion baiezko borobila.

Arrateko bertso afari baten ondoren, Kantabriako barra ertzean, eta soinean behar baino trago gehiagorekin sortutako ideia ero hura ez genekien noraino helduko zen. Ez geneukan helburu finkorik. Baina aste gutxiren buruan, Eibarko "bertso-friki" batzuontzat, ostegun iluntzero Arrate Kultur Elkarteko lokalera joatea ohitura bilakatu zen.

Zortziko txikia zer zen doi doi genekien garai hartan, baina poliki-poliki Asier Ibaibarriaga eta Mikel Arrillagaren laguntzarekin, gure ezagutzak garatuz joan ginen. Bertso eskolara joaten ginen guztiok lortu genuen gutxi-asko bapatean zerbait kantatzeko gaitasuna.

> **"Zenbat parranda amaitu genituen tabernako musikaren gainetik lagunaren belarrira eztarria urratu beharrean bertsotan"**

Gaitasuna eta gogoa. Gogo aseezina. Zenbat parranda amaitu genituen, tabernako musikaren gainetik lagunaren belarrira eztarria urratu beharrean bertsotan.

Baina ez da guztia parranda izan, ezta gutxiago ere. 15 urte igaro ditugu bertso eta lagun artean ikasiz eta jolasean. Hamarnaka haur, gazte eta heldu igaro gara Hankamotxak bertso eskolatik eta denok utzi eta eraman dugu zerbait. Hamaika bertso saio eta ekimen antolatu ditugu. Euskara plazara atera dugu eta Eibar bezalako herrietan hain beharrezko diren euskararen arnasguneak sortu.

Harro sentitzekoa da bertso eskolak egin duen bide guztia. Eta harro sentitzen jarraituko dugu datozen urteetan egingo dugunarekin ere.

Gure bidelagun izan nahi baduzu, anima zaitez eta jarri gurekin harremanetan:

hankamotxak@gmail.com edo Twiter: @hankamotxak

aldaz
hortz klinikak · clínicas dentales
Lasarte-Tolosa-Elgoibar
943 36 63 77

ALDAZ HORTZ KLINIKAKO
LAN-TALDEAK PROTOKOLO
BERRIAK SORTU DITU
tratamenduetan zuon segurtasuna bermatzeko

RPS 181/19



Tf: 943.44.07.52
gausarksl@gausark.es
www.gausark.es

Jaso onenen aholkua

ERREHABILITAZIO ZORROTZEENEI
ERE ERANTZUTEKO KONPONBIDEAK

- Fatxaden errehabilitazioa.
- Errehabilitazio integralak.
- Eraikinen ikuskapen teknikoak.
- Txostenak.
- Igogailuendako aholkularitza eta proiektua.
- Udal lizentzien bideratzea.
- Adituak Errehabilitaziorako Laguntzetan.



Gausark
ARQUITECTURA

%20ko Deskontua EIT idazketan
Teknikak covid-aurkako neurriekin

# Kultura bere tokia berreskuratzen

Arrate Kultur Elkarteak ez du hutsik egingo eta urteroko zitari eutsiko dio aurten ere. Ekaina eta uztaila artean ‘Ikus-entzunezko Astea’ antolatu ohi du San Andres elizako klaustroan eta, aurten, “zailtasunak zailtasun eta atsegin handiz”, lau emankizun eskainiko ditu datorren astean, ekainaren 30etik uztailaren 2ra bitartean, kultur deseskalada hasi du-eta.

Arrate Kultur Elkartearen programazioa martxan da berriz ere eta egitarau potentearekin gainera. Datorren martitzenean, ekainaren 30ean, ‘Ikus-entzunezko Astea’-ri emango zaio hasiera ‘Ez, eskerrik asko. Gladys-en leihoa (2019)’ dokumentalarekin. Bertha Gaztelumendiren lan horretan Gladys del Estal Ferreñoren istorioa kontatzen da, Arguedasen eraiki behar zen zentral nuklearraren aurka 1979an Tuteran egin zen manifestazio baketsuan Guardia Zibilak hil zuen emakumearena, hain zuzen. Film horrek, Gladysen gertakariaren harira, sasoi hartako gizartearen onespena lortu zuen mugimendu sozialaren erretratua egin nahi du.

Gaztelumendiren dokumentalak asmo bikoitza du. Batetik, 23 urte zituen Gladys zein zen eta bere heriotzaren ingurukoak nola gertatu ziren ezagutaraztea; eta, bestetik, Euskal Herrian eta mundu zabalean zentral nuklearren kontra 70eko eta 80ko hamarkadetan izandako erresistentzia mugimenduaren berri ematea.

Dokumentalak deskribatzen duen errealitatean Gladys ez zen izan bortizki hil zen pertsona bakarra. Gazte ekologistaren heriotzaren aurretiazko eta ondorengo gertakariak jaso ditu filmeak eta garaiko euskal gizartearen gehiengoa erakarri zuen mugimendu soziala irudikatzen du.

Dokumentalak 66 minutu irauten du eta emanaldia 22:30ean hasiko da San Andres elizako klaustroan.

### Film labur eibartarra

Uztailaren 1ean, eguaztenean, saio bikoitza izango dugu klaustroan 22:30etik aurrera. Ikus-entzunezkoen eta irudiaren munduan sortzen diharduten eibartar biren lanak egongo dira gozagai, Koldo Edorta Carranzaren film laburra eta Fernando Retolazaren diaporama.

Koldo Edorta Carranza sarritan ikusi dugu kamera eskuan herrian eta herritik kanpo gertatzen dena jasotzen. Bere lanak ere gozatu ditugu hainbatetan eta oraingoan 2019an sortutako ‘Kaleko antzerkia’ aurkeztuko du ‘Ikus-entzunezkoen Astean’.




‘Kaleko antzerkia’ iazko sanandresetan grabatutako lana da, Koldo Edortak etorkinen inklusioari buruz egindako film labur dokumentala. Durangoko Azokan eta Gasteizko Cortada Jaialdian egon da ikusgai, baina Eibarren ez da oraindik estreinatu. Aipatzekoa da, gainera, filmazioan Eibarko familia askok parte hartu izan zutela.

### Trekkinga Nepalen

Fernando Retolaza ere sarritan ikusi dugu kamera atzean, baina argazki-makinaren atzean bere kasuan. Herriko eta inguruko irudiak jasotzeaz gain, munduan zehar hainbat bidaia egin ditu eta bazter guztietako argazkiak ekarri ditu gurera.

Oraingoan Nepalen izan da, Annapurna inguruan hain zuzen ere, eta diaporama bat prestatu du publikoari aurkezteko. ‘Trekking-a Nepalen. Annapurna santutegia’ du izenburu. “Orain dela urte batzuk, atzerriko herrialde urrun batean egindako mendi-bidaia batek logistika asko eskatzen zuen. Orain, komunikatzeko erraztasunekin eta jendeak helmugan duen esperientziarekin, dena askoz errazagoa da”, dio Retolazak lanaren sinopsian. “Nepal ezin hobea da. Herriak kultur aniztasun aparta eskaintzen du, jende atsegina eta hainbat eta hainbat haran eta mendi bisitatzeko erraztasun ugari”.

Trekkingari dagokionez, Katmandu (Nepalgo hiriburua) da hasiera. Hara iristen dira nazioarteko hegaldi guztiak eta, Retolazak dioenez, hiriburuak eta inguruek merezi dute. “Gainera, burua altxatuz gero, Himalaiak ikusiko ditugu”.

Himalaian ibilaldiak egiteko orduan kontuan izan behar da zein sasoitan egiten den, monzoirik ez egotea komeni delako. “Apirila-maiatza edo urria-azaroa izan daitezke aukerarik onenak”, Retolazaren ustez.

Annapurnako itzulia, Annapurna santutegia eta Everest kanpamendu-basea dira ibilaldi ezagunenak. “Bide errazak (altuera-gaitza zainduz) eta paisaia paregabea”, bere berbetan. Dena dela, berebizikoa izaten da gidarien eta garraiolarien konpainia. “Oso atsegina



**Fernando Retolazak Annapurnan egindako ibilaldiari buruzko diaporama prestatu du.** FERNANDO RETOLAZA

da alde guztietatik", Retolazarentzat. "Hemendik, Devan zena oroitu nahiko nuke, dozena erdi bidaia ingurutan lagundu digun gidaria, aurten utzi baikaitu; eta ezin dut ahaztu lanik gabe oso gaizki dagoen jende zoragarri hori; COVID-19ak mugak itxi ditu 2015eko lurrikaratik burua altxatzen hasi berri direnean. Namaste".

## "Desiatzen gaude San Andres elizako klaustroan jotzeko", diote Kokein taldekoek

**Kokeinen kontzertu akustikoa**
Kokein taldeak 20 urte bete ditu aurten, inoiz ahaztuko ez duen urteurrena. Urte hasieran 'Lera' diskoa argitaratu zuen, zaleentzat opari moduan, 'Itzalak' eta 'Iraganaren etorkizuna' abestiak batzen dituen lana. Sasoi berezi honetan ezin izan dute Eibarren zuzenekorik eskaini (aratosteetan Untzagan eskaini behar zuten kontzertua bertan behera laga zuten Zaldibarko zabortegian gertatutakoarengatik), baina azken hilabeteotan hainbat kontzertu akustiko eskaini dituzte Euskal Herri osoan zehar, euren abestiak irakurtzeko eta interpretatzeko modu ezberdinak daudela erakutsiz. Oraingoan, San Andres elizako klaustroan izango ditugu uztailaren 2an, eguenean, 20:00etan.

Kokeinek kontzertu akustikoa eskainiko du, baina bertan ez dira taldekide guztiak egongo. Zaloa Urain abeslaria, Jatsu Argarate baxu-jolea eta Iker Sainz gitarra-jolea izango dira hamarkada bitan ibilbide arrakastatsua izan duen talde eibartarraren melodiak jotzen. "Gu desiatzen gaude kllaustroan jotzeko! Gure abestien eta beste abesti batzuen bertsioak egingo ditugu, gogotsu eta oso pozik", aipatu dute Kokeinekoek.

**'Eguen Zuri 2020' lehiaketa**
COVID-19aren pandemiaren aurretik Zaldibarko zabortegiaren arazoa bizi izan genuen Eibarren. Hura izan zen 'Eguen Zuri 2020' argazki-lehiaketaren emaitza atzeratzeko arrazoia. Hilabete batzuk geroago, ordea, iritsi da sariak banatzeko ordua.

Apirilean eman zuten jakitera zeintzuk izan diren aurtengo irabazleak eta Jose Luis Irigoien argazkilari eibartarrak jaso zuen lehen saria 'Eskuak' lanarekin. Bigarren postua Pedro San Romanek eskuratu zuen 'Momotxorros' lanarekin eta hirugarren Fernando Retolaza izan zen 'Txanogorritxu festara' izenburua duen argazkiarekin. Gainera, argazkiak modu birtualean ikusteko aukera eman zuen Arrate Kultur Elkarteak Topaleku Birtualean (Facebooken).

Orain benetako Topalekua zabaltzeko aukera du Kultuk eta uztailaren 1ean 'Eguen Zuri 2020' lehiaketaren sari-banaketa eta erakusketa egingo da 19:30ean.



Estaziño kalekoen txupinazoa


NeleDantza taldea





28 urte eibartarron zerbitzura
AHOLKULARITZA eta GESTIOA
EGOLAN
Julian Etxeberria 7, 7.-C
Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
egolan.eibar@gmail.com
Animo guztioi!


San Juan Zortzikoa
Usartza Txistulari Taldea











ZENTRAL OPTIKA
Ego Gain, 2
943 701 408
23. urteurrena ospatzeko!!!
2 x 1
betaurrekoetan
BALDINTZAK KONTSULTATU



Omenaldia osasun-langileei eta maskarillak egin dituztenei








Sari banaketa

caracil seguros
CARASA, CILVETI, LACORT y CIA – Aseguru-Artekaritza
JUANJO IRIGOIEN
Juan Gisasola, 6 - behea
Tfnoa. 943 70 29 98 Mobila. 679 517 859 jirigoien@caracil.com
caracil.com
1918-2020: 102 urte zurekin
Esperientzia eta kalitatea dira gure oinarriak



Lizarrako dultzaineroak



EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Bidebarrieta, 20
Espezialistak plater prestatu eta haragi bikainetan
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
943 20 16 69
@Oberenaharategia

OBERENA HARATEGIA

# Jaixak Herrixak Herrixandako
























AMAÑA
FONTANERIA

- Kalefakzio Instalazioak
- Sukaldeak eta Bainuak
- Galdara eta Berogailuen Instalazioak
- Butano, Propano eta Gas Naturalaren Instalazioak
- Azterketa eta Proiektuak Ordenadorez
- Aire egokitua

T. Anitua 12
Telefonoa. 943 201 930
fonta.amana@gmail.com

trinmer
Telekomunikazio Instalaziorako Enpresa
1305 zkia.

TB seinalea jasotzeko antena-instalazio profesionalak
Satelite bidezko TB / TB digitala
Teledistribuzioak
Konponketak eta mantenimendua

tdtrinmer
www.trinmer.com
Ego-Gain, 2 Bac • Tel: 943 127 350


Lisker Coliseo antzokian







AUTO - RECAMBIOS
Umbe
Barrena, 11 umbe.holyauto@hotmail.com
Tel. 943 12 04 00 Fax. 943 70 20 65
Autoarendako hornidurak
eta ordezko piezak
HolyAuto
GROUP











BG
BIC GIPUZKOA
UP! EUSKADI
Edificio Tekniker
Iñaki Goenaga kalea, 5. EIBAR
tel.: 943 00 09 99
www.bicgipuzkoa.eus
bic@bicgipuzkoa.eus


San Juan sorbak




San Juan sua





**Kezka dantza taldea Coliseoan**














# Hezetasunak kamustu zuen Katedralean jokatzen zen Masters-eko lehen partidua

>>> Koronabirusaren ondorioz hiru hilabete eta erdi frontoietan partidurik gabe egon ondoren, Astelenak hartu zuen eguaztenean profesional mailako lehenengoko jaialdia. Baina antolatzaileen asmoek kale egin zuten, arratsaldeko bigarren partidua hasi eta gutxira, markagailuak 5-2koa erakusten zuenean, partidu nagusi hori bertan behera laga behar izan zutenean frontoian zegoen hezetasunak horretara bultzatuta. Pilotariek nahiko lan zuten zutik egoten eta, aldageletan zapatilak aldatuta ere, Imaz atzelaria bigarrenez erori zenean, min hartzeko arriskua saihesteko amaitutzat eman zuten jaialdia.

Egun osoan izandako beroak frontoian sortutako hezetasunari azken egunotan instalazioa egokitzeko erabilitako desinfekzio produktuen eragina gehitu zitzaion eta horrek Astelenan gutxitan izandako egoera ekarri zuen. 300 bat lagun bildu ziren San Juan eguneko jaialdian, frontoiaren aforoaren laurdena gutxi gorabehera, eta bertaratutakoek protokoloak agindutakoa bete izan zuten arazo barik.



Pilotariek min hartzeko arriskuak behartu zituen jaialdia amaitzera.

Jaialdiko lehenengo partiduan Peña II.ak eta Bikuñak 22-9 irabazi zieten Salaberria eta Mariezkurrena II.ari. Partidu nagusian Ezkurdia eta Aranguren 5-2 zihoazen aurretik Altuna II.a eta Imazen kontra. Bertan behera geratutako Masters Caixabank txapelketako partidu hori beste nonbaiten jokatu beharko dute.

# Eibar FT-k hiru talde ditu atzetik Liga amaitzeko zortzi jardunaldiren faltan



>>> Mendilibarren taldeak maila ematen jarraitzen du eta lortutako emaitzak baino zeozer gehiago ere merezi izan du pandemiaren ostean jokatutako hiru partiduetan (atzo Valentziaren aurka Ipuruan jokatu behar zuen ale hau inprentara bidali genuenean). Real Madrilen aurka 3-1 galdu eta gero, eibartarrek Athletic-ekin bina berdindu zuten Ipuruan eta Getaferekin bana Madrilen; azken partidu horretan, gainera, epaileak gola kendu zieten azken unean eta bi puntu garrantzitsu geratu ziren bidean. Ordutegi onarekin jarraituko dute jokatzen Eibar FT-koek: hurrengo bi partiduak ere (Granadan domekan eta Osasuna Ipuruan hartuz eguenean) 19:30ean hasiko dira eta Sevillako Sanchez Pizjuanen hurrengo astelehenean jokatzekoa 22:00etan. Ez dute zorte bera izaten ari atseden tarteei dagokienez, azken datuek adierazi dutenez 1. Mailako talde kaltetuena baita partidu bat jokatu eta hurrengokoaren arteko ordu kopuruaren arloan.

Aurrekoa ez da taldeak duen arazo bakarra: ekaina amaitzearekin sei kontratu amaituko dira eta Orellanak, esaterako, hurrengo denboraldian Valladoliden jokatuko duela diote.



Eibar Igerixaneko gazteen taldea Mutrikura egindako irteera batean.

# Eibar Igerixan entrenamendu B Planean murgilduta

>>> Koronabirusa herriko igerilekuak ixteko gai izan bada ere, Eibar Igerixan klubeko igerilariek ekainaren bigarren hamabostaldian klubak antolatutako B Planari jarraitu diote. Mailaz maila, martitzen eta eguenetan, 16:30ean, igelen kasuan, eta astelehen, eguazten eta barixakuetan (16:30ean izurde eta marrazoen kasuan, 18:00etan gazteen mailan eta 19:00etan helduenean) eta, azkenik, barixakuetan, 18:00etan, masterren kasuan, hainbat saio izan dituzte. Igela, izurde eta marrazoen taldeen irteerak Eibar inguruan egin dituzte, mendian ibilalditxoa egin eta entrenamendu saioak eta hainbat joko burutuz. Gazte, heldu eta master taldeek, bestalde, Mutrikun egin dituzte entrenamendu-saioak.


Neinor HOMES
Etxebizitza iraunkorrak
Eibarko erdigune berrian
BREEAM ES
COOL FOR A SUSTAINABLE BUILT ENVIRONMENT
• BREEAM ZIGILUAREKIN •
ARRATE HOMES • EIBAR
ERREBAL PROIEKTUAREN ONDOAN
Neinor Store: Bidebarrieta, 6 - Eibar
900 11 00 22 • neinorhomes.com


Informaticando
BADAKIGU HILABETE HAUEK GOGORRAK IZAN DIRELA
BAINA DENON ARTEAN LORTUKO DUGU
ELKARREKIN MARTXAN!
KARTELERIA
DIGITALA
ZURE NEGOZIOAREN
IRAGARKIA EIBAR
ELGOIBAR ETA
DURANGON
KARTELERIA
DIGITALA
WWW.INFORMATICANDO.EUS
943 15 06 22

<<< **IKER GARCIA**
Leanstocks.com >>>

# “Momentu honetan makinariaren stock handia dago”



Makina-erreminta saltzeko eta erosteko *Leanstocks.com online* plataforma sortu du Iker Garcia eibartarrak. Armeria Eskolan ikasi zuen eta ondo ezagutzen du industriaren sektorea. Plataforman agertzen diren enpresak makinaria saldu eta erosi nahi dutenak dira. Makinen aukera zabala eskaintzeaz gain, zerbitzu tekniko integrala eskaintzen du *Leanstocks.com-ek.*

**Nola sortu zen ideia?**
Aspaldi nago sartuta industriaren sektorean, erreminta-makinaren eta mekanizatuaren eta dekoletajearen arloan. Etengabe aritu naiz trebatzen. Nahiko ipurterrea naiz, eta, bizi dugun egoera ikusita, enpresen beharrei erantzuteko asmoz erabaki nuen Leanstocks.com plataforma digitala sortzea. Tknika eta Metxak antolatutako *startup* lehiaketa batean parte hartu nuen. Nire ideia aukeratu zuten, eta programa batean parte hartu nuen. Horrek proiektuari forma emateko eta modu bideragarri batean gauzatzeko aukera eman dit.

**Nolakoak dira plataforman dituzuen enpresak?**
Alde batetik makinak fabrikatzen dituzten enpresak daude, salerosketara dedikatzen direnak, eta, bestalde, edozein arrazoi dela-eta, makinaria salgai jartzen duten ekoizpen-enpresak daude; esate baterako, ekoizpenaren jaitsieraren ondorioz makina geldirik daukaten enpresak, edo besta makina hobea erosi nahi dutenak.

**Zein da enpresek bizi duten egoera? Eta zer da eskaini ahal diezuena?**
Logikoa den bezala, arazoak dituzte. Makinariaren stock handia dago; saltzeko behar handia dago. Enpresa asko, zoritxarrez, bezeroak galtzen ari dira. Gure plataformaren bitartez, daukaten stockajeari irteera eman ahal diote, modu digitalizatu eta eroso batean. Erosi nahi duten enpresei dagokienez, hauetako zerbitzu bat behar badute, makina sorta zabala ikus dezakete plataforma bakar batean. Gainera, behar duten zerbitzuaren arabera, euren beharretara egokitzen den enpresa bilatzen laguntzen diegu.

> **“Plataforman makinak saldu edo erosi nahi dituzten enpresak daude”**

**Zerbitzu teknikoa ere eskaintzen duzue, ezta?**
Zerbitzu tekniko integrala eskaintzen diegu bezeroei: mantenimendua, "puesta a punto" delakoa, makinariaren garraioa... Horrez gain, makina zaharra berreraiki nahi duten enpresei ere laguntzen diegu; enpresa askotan zaharkituta gelditzen diren makinei funtzionalitate berriak gehitzen dizkiete, produktiboagoak izan daitezen. Kasu horietan, makina berri batean inbertitu beharrean, euren makinaren berreraikitzean inbertitzen dute, koste gutxiagoarekin.

**Enpresak espero zenuten bezala erantzuen ari dira'?**
Nire ideia forma hartzen joan zen neurrian enpresekin harremanetan jartzen hasi nintzen, makinaria saltzeko edo erosteko orduan euren beharrak zeintzuk ziren ondo ezagutzeko. Behin plataforma sortuta enpresak gehitzen joan dira. Lan handia egin dugu enpresengana ailegatzeko, hori da zailena. Bain, behin informazioa emanda, eta eman ahal diegun balioa azalduta, oso jarrera ona daukate eta eurentzako interesgarria izan diatekeela uste dute, ikusgarritasun handiagoa lortzeko.

**Nola funtzionatzen du plataformak?**
Euren produktuari edo zerbitzuari ikusgarritasuna eman nahi dioten enpresak gure datu-basean gordetzen ditugu, eta harremanetan jartzen ditugu makina bat erosi edo zerbitzu bat kontratatu nahi duten enpresekin. Bitartekari lana egiten dugu, azken batean. Dagoeneko hainbat enpresa jarri ditugu harremanetan. Adibidez, tornu bati kontrol numerikoa jartzeko deitzen badigute, gure datu-basean ditugun eta horretara dedikatzen diren enpresei deitzen diegu; eta lan hori egiteko aukera dagoela ikusten badute, bata bestearekin harremanetan jartzen ditugu, euren artean gaian sakondu dezaten eta egin beharreko lana adosteko.

**Nongo enpresak dira?**
Inguruko enpresekin aritzen gara gehienbat, baina estatu mailakoak ere baditugu (Bartzelona, Valentzia, Sevilla...). Online plataforma bat geranez, enpresak ez dira derrigorrez hemen egon behar. Guk prozesu guztia errazten diegu.

**Badaude horrelako online plataforma gehiago?**



## “Makina zaharra berreraiki nahi duten enpresei ere zerbitzu tekniko integrala eskaintzen diegu”

Antzerakoak daude, baina atzerrian, eta bakarrik salerosketan jarduten dute. Guk daukagun balioa da industriarekin eta makina-erremintarekin lotura handia duen zonalde batean gaudela eta prozesu guztian laguntzen dugula: enpresak makina aukeratzen duen momentutik hasita, martxan jarri arte, mantenimendua eta zerbitzu teknikoa ahaztu barik.

**Zeintzuk dira epe motz eta ertainera dauzkazuen helburuak?**
Batez ere nortzuk garen eta gure plataforma digitalaren bidez eskaintzen duguna ezagutzera ematen jarraitu nahi dugu. Orain ez da saltzeko momentu ona, baina bai datu-base on bat lortzeko. Erreminta-makinaren eta metalaren inguruko ekosistema hori sortzen jarraitu nahi dugu.









# San Juan sorbia, trumoitik babesteko

Trumoia zenean kandela bedeinkatua piztu eta sorbiari sua ematen zitzaion. Zer errezatzen zuten: “Santa Barbara, Santa Cruz, jauna balio jakiguz (...)”. Gurutzeak ere urtean behin egiten ziren. San Juan goizean egiten zen ohitura zaharra zen. Gabon gauean ogi muturra gordetzen zen, hurrengo urtera arte.



**San Juan jaiak 60ko hamarkadan. Leizaran anaiak. Danborra joten dagoen gaztea argazkian ezkerretara dagoenaren semea da.** FOTO PLAZAOLA.



**Juana Josefa Loyola Vergara**
(1916 – 2005)

Asua baserrian jaio eta bertan bizi izan zen ezkondu arte. Eskolara 7 urterekin joan zen eta 14 urtera arte joaten jarraitu zuen; ondoren klase partikularrak hartu zituen. Ofizinan lan egiteko ikasketak amaitu eta 17 urte zituenerako prest zegoen lanean hasteko. Lehenengo jostundegi batean hasi zen lanean baina berehala Matsarian ekin zion lanari, Thieme & Edeler enpresan. Gerra Zibila hasi zenean, Thieme eta Edeler Alemaniara joan ziren. II Mundu Gerra hasi eta berehala galdu zen enpresa.

EIBARTARREN

## **Juana Josefa Loyola**ri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“San Juan sorbia zan San Juan bezperan, San Juan goizian, ipintzen ziran artua, garixa, ta beste bat, oin ezin dogu topau ezertara bez, sorgin iria esaten genduan. Iria... pues garua, baiña espeziala. Ha be bai, ta usaintzeko lorak be bai (...). Baiña izaten zan txorta haundi bat. Eta ha txortia zertu egitten zan, ximeldu. Ta gero, trumoia zanian, kandelia piztu, kandela bedeinkatua piztu, ta harek sorbia siku harek ba su emon, ta keia jun, ta Santa Barbara Santa Cruz, jauna balio jakiguz (...) ez zedilla ezer apurtu han, tormentan. Trumoiakin ez zedilla ezer apurtu ta, holako gauza batzuk, errezo moduan ta... Sorbia eruan bihar zan ze bestela gero zer egin trumoia zanian? [Zelan egitten zan, urtian behin?] Urtian behin. Ta kurutziak be urtian behin, kurutziak. Ointxe be egitten dittue horrek, basarrixan eta badagoz [Ta noiz egitten zan hori?] San Juan goizian. Arantzia, arantza zurixa. Ebagi ramo bat, ein hari ebagi bat erdi-erdixan, ta beste bat sartu hari kurutzia egitten. Ta ortuan, edo soruan... danetan ipiñi”.



1895 inguruan. Korrida Orbeatarren dorretxe parean, Untzagako zezen-
plazan. EIBARKO UDAL ARTXIBOA-CASTRILLO ORTUOSTE FONDOA.

# San Juanak Eibarren

Aitak zezenetarako zaletasun handia zuen. San Juanetan urtero-urtero "enbolaura" joaten zen. San Juanetako ohitura, gurasoak kafea hartu eta ahizpa biek izozkia; ondoren dantzara. Lehenengo dantza Luzianak eta aitak egiten zuten beti. Dantzan oso ona omen zen "Errotatxo".



**Luciana Larreategui Arizaga**
(1912 – 2003)

1912an jaio zen Ardantza kalean. Aita, Esteban Larreategi "Errotatxo", eta ama "Euzkiñekua". Umetan, udaletxeko eskolara joan zen ikastera. Jacinto Olaberekin grabatzen ikasi zuen eta 1931an Eibarko Udalak Errepublikako presidentea zen Niceto Alcalá Zamorari oparitu zion pistola damaskinatua bien artean egindakoa zen. Aita bezala, Luciana ere mendizale amorratua izan zen gazte denboran, Errepublika sasoian Eibarko Club Deportivo-ko Juntan bokal izatera iritsi arte. Grabadore lanarekin jarraitu zuen luzaroan, baina ezkondu eta urte batzutara, Alfan hasi zen lanean. Errepublika sasoia eta Gerra Zibila zuzen-zuzenean ezagutu zituen.

AHOTAN

## **Luciana Larreategui**ri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

"Gure aitta izaten zan, zezenan aurrera juateko amorratu bat (...) Orduan eguan afan haundixa juateko enbolaura (...) Gero ezkondu, famelixia euki, neu be koskortzen ( ...) Aittak esaten eban: San Juan bisperan enbolaura. Ama, aitta, ahiztia ni baiño urte bi zaharragua zan, ta ni. Enbolura. Urtero urtero urtero urtero. Seiretan afaldu, gero zezena ikustera, enbolaura. Gero, akabatzen zanian ha, Nocheneko kafera. Mantekaua jatera, kopa haundi bat, eh! Ointxe be ikusi egitten dot zelako kopia izaten zan. Mantekaua. Berak kafe konpletua. Amak ez dakit zer, kafia be hartuko eban, kafezalia zan ta. Ta ahiztiak eta nik mantekaua. Ta han barriketan egoten giñan gero, Untzaga plazan zan, Nocheneko kafia esaten jakon, ta kanpuan mahaixak ipiñitta ta... San Juan bisperia. Ta gero erdi-erdixan Untzagan kioskua, musikuendako. Ta han, hasten zanian musikia, lehelengo piezia, pasodoblia, aittakin dantzan egin bihar zan, hombreee! [Ta zeiñek egitten zeban?] Neuk! Neu be dantzarixa nintzan (...)".

Ahozko ondarea jasotzeko asmoz EIBARTARREN AHOTAN proiektua jarri zuen martxan Ego-Ibarra batzordeak 1999ko udan, Eibarko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Proiektuaren helburua Eibarko eta inguruko herrietako nagusiekin hitz egin eta antzinako ipuin eta kontuak bideoz jasotzea da. Material horren zatirik handiena *online* kontsultatu daiteke **egoibarra.eus** webgunean (tartean 500 bideo-pasarte inguru). Bideo horietako batzuk aukeratu ditugu gure aldizkarirako atal berri hau sortzeko.

# Euskaraldian parte hartzeko gonbitea jasoko dute herriko entitateek

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo da aurten Euskaraldia, 15 eguneko ariketa soziala. Bigarren edizio honen berrikuntza nabarmena ariguneena da, era guztietako erakunde, enpresa eta elkarteetan sortzen diren euskara erabiltzeko gune babestuena.

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo den Euskaraldiaren bigarren edizioaren berrikuntza nabarmenetakoa da ARIGUNEena, era guztietako erakunde, enpresa eta elkarteetan sortzen diren euskara erabiltzeko gune babestuena. Lehen edizioan hiztunen arteko harremanetan oinarritutako ariketa sozialari talde babestuetan egiten den ariketa gehitu zaio aurten.

*Ariguneak* sortu eta entitateek (enpresa, talde, denda, taberna, elkarte, erakunde, ikastetxe ...) izena emateko epea irailaren 27ra arte egongo da zabalik. Irailean hasiko da ahobizi eta belarriprest modura herritarrek izena emateko garaia.

Eibarren ere heldu nahi zaio berriz ere Euskaraldiari, eta AKEBAItik gonbidapena egiten zaie gure herriko entitateei egitasmoan parte har dezaten. "Egun hauetan gonbidapen gutunak iritsiko dira Eibarko enpresa, denda, taberna eta elkarteetara, izena eman nahi izanez gero gurekin harremanetan jar daitezen. Nahi duten guztiei laguntzeko prest gaude. Elkarrekin errazago egingo dugu bidea", diote.

**"Gonbidapen gutunak iritsiko dira Eibarko enpresa, denda, taberna eta elkarteetara"**

Entitateen hizkuntza ohituretan eragiteko antolatuko dira *ariguneak*. AKEBAItik azaldu digutenez, "euskaraz lasai aritzeko gunea da *arigunea*. Enpresan edo elkartean euskarak duen egoeratik abiatuta, euskararen erabileran aurrera egiteko aukera ezin hobea izango dute izena ematen duten entitateek". Euskaraz gehiago aritu nahi dutenentzako urrats bat gehiago dakar Euskaraldiak.

...eta kitto!
etakitto.eus
ezagutzen dituzu gure sare sozialak?
YouTube
gaztekitto
etakitto.eus

# gremioen gida

943-206776

## ANTENAK

BALATZ
Instalakuntzak eta konponketak antenak
Bidebarrieta, 37 Tlfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bae
Tlfnoa. 943 12 73 80
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN PROFESIONALAK

## ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.
Ego Gain, 9 ac
egoluz@hotmail.com
677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko urgentziak
610 532 922 www.thelecer.com

## IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.
Zure etxea, bulegoa, tailerra... aldatzen laguntzen dizugu etorkizun hobeaz goza dezazun
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

## ARKITEKTOAK

alatz etxeberria martinez ARKITEKTOA
alatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832
estudio etxeberria
Mekola, 7
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com

## ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E.
E.I.T.
AJT

## KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
ERREKATXU, 3
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
943 203 903
ERAKUSKETA

## AROTZAK

ulmar S.L.
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 07 www.ulmar.net
ERAKUSKETA

## ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA
PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
Rosario, 15 -Elgoibar-
605 713 168 943 744 019

## GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar
Superfizie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua
Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioseibar.com Arragueta, 18-2.D

## PINTURAK

baglietto
PINTOREAK
Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa
Errebal, 21 Tel: 943 201 922
www.bagliettoeibar.com

www.kolorlan.com 667 54 89 16
KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L

>>>>>>>>>>>>>>>>>>>>> **ANDER MAIORA** • *IDAZLEA*



# "Heraklitoren estilo orakular eta iluna garatu eta gaurkotu dugu"

Ander Maiorak Jose Luis Trullorekin, "lau eskutara", 'Meandros. En torno a Heraclito' liburua idatzi du. Idazle biek Heraklitoren figurarekiko duten interesetik abiatzen den liburua da eta, bata bestearekiko kilometro askotara bizi arren (Trullo Sevillan bizi da), liburua sortu dute, "urrutiko harremana duen bikotea bezala". Apeaderodeaforistas. es-en erosi daiteke.

**Nolakoa da 'Meandros. En torno a Heraclito'?**
Greziako filosofo presokratikoa izan zen Heraklitorekin elkarrizketa irudikatu dugu. Mendebaldeko aforismoaren aitzindaria da Heraklito eta, omenaldi gisa, bere burutazioak oinarri hartuta, bere estilo orakular eta iluna garatu eta gaurkotu nahi izan dugu. Liburua hiru zatitan banatuta dago, batetik bestera aurrera egin ahala intentsitatea areagotuz.

**Zerk bultzatzen zaitu idaztera?**
Nire barrunbeak bultzatzen nauela suposatzen dut. Barne-sentimenduak, gogoetak, bizipenak... horiek denak kanpora ateratzeko beharrak harrapatu eta exorzizatzen nau. Ziur nik neuk ere ezezagun ditudan beste motibazioak ere izango direla, auskalo.

**'El Paramo' liburuarekin 'AdA' saria jaso zenuen. Presioa ematen dizu hurrengo liburuak idazteko orduan?**
Sariak asko poztu ninduen. Hurrengo liburuei begira presioa baino, horrek indarra eman zidala esango nuke.

**Aforismoen bidetik jo duzu idazteko orduan. Zergatik?**
Gaur egungo erritmoa batetik eta, bestetik, lanbide gisa, idazketan ez diharduen eta adin txikiko bi seme-alaba dituen aita izanik, idazteko malgutasuna ematen duen genero laburra da aforismoa. Edonon eta edozein egoeratan zaudela jaso ditzakezu zure gogoetak paperezko zapi batean zein mugikorrean. Gogoeta horiek garbira pasatzerakoan datoz buruhausteak. Hori bai, bukaezinezko zuzenketak eta bueltak eman ditzakezu hamaika zentzu edo esanahi desberdin emanez.

**Poesia ere idazten duzu. Zer k bultzatzen zaitu modu batera edo bestera idaztera?**
Aforismoa eta poesiaren arteko diferentzia nagusiena forman besterik ez dago. Gogoetak, erreflexioak edo meditazioak aforismo bezala agertzen zaizkit batzuetan eta bestetan, aldiz, poesian irudikatzen ditut. Bata bestearekiko oso hurbil dauden generoak dira biak. Izan ere, autore edo idazle asko dira biak jorratzen dituztenak.

**Momentu honetan sasoi berezia bizi dugu. Inspirazio iturri izan daiteke?**
Gehiengoak bezalaxe larritasunez bizi izan dut ezohiko egoera hau eta halaxe jarraitzen dut. Espiritualki asko mugitu eta erakutsi digula esango nuke. Ezagutzen dugun mundu honetan gure tokia edo pasabidea finitoa eta ahula dela, oso, aurpegiratu digu COVID-19ak. Heraklitok zioen bezala: dena sutatik dator eta sutara itzuliko da.

**Liburu berria eskuan, buruan duzu hurrengo proiektua?**
Bi-hiru proiektu ditut esku artean. COVID-19ak lehertutako krisialdia edo egoera etorri aurretik argitaletxe batekin poesia-liburu bat ateratzeko bidea hasita genuen, orain "normaltasun berri" honetan ikusi beharko da horrekin aurrera egin dezakegun. Bizitzak aurrera dirau, hala nola, eta baita gogoetak eta proiektuak ere. Heraklitok zioen bezala, urak bere bidea aurrera jarraitzen du eta gu ez gara inoiz erreka berean bitan bainatuko.

# Elgoibarren eskainiko dituzten Bizilabe zientzia tailerretan izena emateko epea zabalik dago



Elhuyarren eskutik garatzen den Bizilabe gazteen artean zientzia eta teknologia bultzatzeko aisialdiko ekimena da eta, eskolaz kanpo, ikasturte osorako programa eskaintzen du. Arduradunen berbetan, "10-17 urteko gazteentzako eskaintza honek zientziarekiko eta teknologiarekiko interesa eta motibazioa, ekintzailetasuna eta sormena lantzen ditu. Horretarako, tailerretan parte hartu eta proiektuak egingo dituzte". Hainbat eskualdetan izango dira ekintzak eta Debabarrenerako antolatu dituztenak Elgoibarren eskainiko dituzte: "Izan ikertzaile eta asmatzaile" eta "Ekin energiaz!" ekimenei buruzko informazio guztia https://bizilabe.elhuyar.eus/eu/elgoibar helbidean kontsultatu daiteke eta izena emateko ere webgune horretan sartuta dago horretarako aukera.




# Mendiak aplikazioa eta webgunea eguneratu dituzte

Euskal Herriko mendiak ezagutzeko aukera ematen duen Mendiak APPean zein Mendiak.eus webgunean berrikuntza ugari egin ditu CodeSyntaxek azken hilabeteotan. Besteak beste, mapak eguneratu eta hobetu dituzte, mendi-fitxei informazio praktiko gehiago erantsi diete, aplikazioari 150 track berri gehitu dizkiote eta, oro har, Euskal Herriko mendien informazio pratikoa eguneratu eta handitu dute APPean zein webgunean. Aplikazioa garatu dutenen berbetan, “egin ditugun azken aldaketen artean, Euskal Herriko mendilerroen bista berriak ditugu, gure herrialdeko mendilerro nagusien fitxekin eta mendi-zerrendekin”.

2016ko udazkenean sortu zituzten Mendiak webgunea eta APPa, Euskal Herriko mendien datu-basea. Euskal Herriko 2.000 mendi ingururen informazio osatua ematen dute batak zein besteak. Horrekin batera, mendizaleei tresna erabilterraza eskaintzen die informazioa aurkitzeko, mendi-igoerak markatzeko eta lagunen artean partekatzeko. Norbere estatistiken historikoak gorde eta kontsultatzeko aukera ere ematen du aplikazioak. Euskeraz dago eta Androiderako zein iPhonerako garatu dute.

# Hainbat zerbitzu eta hobekuntza gehitu dizkiote Elhuyarren itzultzaile automatikoari



Elhuyarrek berritu egin ditu bere itzultzaile eleaniztunaren webgunea (itzultzailea.eus) eta mugikorrerako aplikazioa. Mugikorretarako aplikazio berrituak, aurretik eskaintzen zituen zerbitzuez gain, irudietako testua itzultzeko aukera ematen du. Horretarako nahikoa da aplikazioa zabaldu eta mugikorra irudiaren parean jartzea. Aplikazioak irudiko testua detektatu eta guk eskatutako hizkuntzara itzuli egingo du. Horrez gain, aldiko 500 berba itzul daitezke webguneko testukutxan. Webgunean, berriz, doako zerbitzuak areagotu dituzte eta, testu soilaz gain, dokumentu formatodunak ere itzuli ahal izango dituzte (1.000 hitzerainoko hiru dokumentu doan).



# Dibujo eta Zeramika udal eskoletarako matrikulazioa eguaztenean hasiko da

2020-2021 ikasturtean Margo eta Pintura Udal Eskolan eta Zeramikakoan izena emateko epea 2020ko uztailaren 1etik 24ra bitartean (biak barne) egongo da zabalik. Udalak jakinarazi duenez, “COVID-19k eragindako egoera dela eta, 2020-2021 ikasturteko matrikulak ez dira presentzialki egingo, posta elektronikoz baizik”. Horrekin batera, Dibujo Eskolak ikasle gutxiago edukiko ditu talde bakoitzeko. Hori dela eta, talde batean matrikulatutako pertsonen kopurua ezarritakoa baino handiagoa bada, zozketa egingo dute.

Ume zein helduen taldeetan eskainiko dituzten ordutegiak, kurtsoaren prezioa, matrikulazioaren inguruko argibide guztiak eta bete beharreko matrikula orria Udalaren webgunean (www.eibar.eus) eskuratu daitezke. Matrikulazio orria eta agiriak, berriz, pegora@eibar.eus helbidera bidali behar dira.



# Kezkak zabalik dauka haur zein helduentzako matrikula epea

Kezka dantza taldeak aditzera eman duenez, Eibarko Klub Deportiboaren eskutik martxan dagoen Dantza Eskolan 2020-2021 ikasturtean jarduteko izen-ematea zabalik dago, bai nagusientzat bai haurrentzat (2016tik aurrera jaiotakoak). Hurrengo kurtsorako, gainera, eskaintza berria egongo da, 4-5 urteko haurrentzat klaseak emango dituztelako. Euskal dantzak ikasteko gogoz bazaudete eta informazio gehiago nahi izanez gero, edo zuzenean izen-emateak bideratzeko, kezka@dantzan.com posta elektronikora idatzi daiteke edo, nahiago izanez gero, 943 530 440 zenbakira deituta (astelehen, eguazten eta barixaku goizez) klaseen inguruan nahi beste argibide jasotzeko aukera izango duzue.



**Lore artean, zeruraino.** PERIKO IRIONDO

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | | | | | | 8 | | |
| | 3 | | | 6 | | | 7 | |
| | 8 | | 2 | 7 | | | 3 | |
| | | | | | | | 6 | 8 |
| 8 | | 1 | | 3 | | 4 | | 7 |
| 2 | 4 | | | | | | | |
| | 5 | | | 1 | 7 | | 4 | |
| | 6 | | | 5 | | | 2 | |
| | | 9 | | | | | | 5 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2 | | 4 | | 9 | 8 | | 1 |
| | | | | 6 | | | | |
| | 6 | | 1 | | | | 9 | |
| | | 9 | | | 1 | | | 4 |
| 8 | | | 7 | | 4 | | | 3 |
| 3 | | | 6 | | | 9 | | |
| | 4 | | | | 8 | | 2 | |
| | | | | 4 | | | | |
| 7 | | 2 | 9 | | 3 | | 5 | |

soluzioa



# SUDOKUAK



soluzioa

# LABIRINTOA





# AURKITU DESBERDINTASUNAK



## Telefono jakingarriak

| | |
|---|---|
| SOS deiak | 112 |
| Pegora | 010 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 |
| Portalea | 943 70 84 39 |
| Udaltzaingoa | 943 20 15 25 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa | 943 82 01 10 |
| KIUB | 943 20 38 43 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 |
| Iberdrola | 900 17 11 71 |
| Naturgas | 902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Eibar Ospitalea | 943 03 29 00 |
| Mendaro ospitala | 943 03 28 00 |
| Anbulategia | 943 03 25 00 |
| Torrekua | 943 03 26 50 |
| Errepideak | 902 11 20 88 |
| Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Eusko Tren | 944 33 33 33 |
| Lurraldebus | 900 30 03 40 |
| Pesa | 900 12 14 00 |
| Taxiak | 943 20 30 71 / 943 20 13 25 |
| Andretxea | 943 70 08 28 |
| Alkohol. Anon. | 629 14 18 74 |
| Al-Anon/Alateen | 650 26 59 63 |
| Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak) | 699 37 75 20 |

## Farmaziak

**BARIXAKUA 26**
**EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)

**ZAPATUA 27**
**EGUNEZ | Lafuente** (Sostoatarren, 10)

**DOMEKA 28**
**EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)

**ASTELEHENA 29**
**EGUNEZ | Iraundegi** (Calbeton, 19)

**MARTITZENA 30**
**EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)

**EGUAZTENA 1**
**EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)

**EGUENA 2**
**EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5))

**BARIXAKUA 3**
**EGUNEZ | Morgado** (San Agustin, 3)

**GAUEZ BETI**, 2020an,
**Barandela** (Ziriako Agirre, 4)

## Eguraldia (euskalmet.net)




## Hildakoak

- **Jose Luis Martos Blanco**. 66 urte. 2020-6-16.
- **Mª Carmen Arana Zuazo.** 94 urte. 2020-6-17.
- **Aurora Hernandez Vazquez.** 2020-6-17.
- **Garbiñe Paredero Ogara.** 85 urte. 2020-6-18.
- **Angel Santiago Ordax**. 92 urte. 2020-6-20.
- **Jesus Mª Segurola Iriarte.** 58 urte. 2020-6-20.
- **Jesus Rodrigo Pascual.** 76 urte. 2020-6-21.
- **Feliciano Castrillo Ortuoste.** 84 urte. 2020-6-22.
- **Maribel Telleria Agirre.** 80 urte. 2020-6-23.
- **Julio Fernandez Tovar.** 78 urte. 2020-6-24.

## Jaiotakoak

- **Araitz Baranguan Arriola.** 2020-6-15.
- **Sua Badiola Diez.** 2020-6-15.
- **June Aldalur Anda.** 2020-6-16.
- **Ayman El Jaddaoui Khaldi.** 2020-6-21.

ek!

**ESKELAK, URTEURRENAK ESKERTZAK... jartzeko:**

**688 62 76 89**

**publizitatea@etakitto.eus**

ek!

**ETXEKOEN ZORION-AGURRAK bidaltzeko:**

**publizitatea@etakitto.eus**









**688 62 76 89**
publizitatea@etakitto.eus

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, **JUGATX**, atzo 16 urte bete zenduazen-eta. Segi hain jatorra eta maitagarrixa izaten, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **AITXITXA**, hillaren 23an urtiak bete zenduazen-eta. Musu haundi bat Danel, Aner, Noa eta Luka zure illoben partez.



Zorionak, **LUKA** Lopez Amas, hillaren 24an 3 urte bete zenduazen-eta. Musu haundi bat Danel eta Aner zure lehengusuen eta, batez be, Noa zure arrebaren partez.



Zorionak, **NAHIA** Arriaga Ormaetxea, famelixako sorgintxuak martitzenian 3 urte beteko dittu-eta. Musu potolua danon partez.



Zorionak, **IOAR**, domekan 7 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, zure ahizta Ixabaren partez.



Zorionak, **JON** Justel Cabezon (domekan 8 urte) eta **LORE** Arregi Cabezon (uztaillaren 22xan 15 urte). Famelixaren eta lagunen partez.



Zorionak, **ARENE** (hillaren 16xan 3 urte) eta **HEGOA** (hillaren 29xan urtetxua). Musu haundi bat famelixa guztiaren partez! Jarraittu horrela, alai eta zoriontsu!

zarelakogara

Izen-abizenak........................ Helbidea........................
Tfnoa / emaila........................ NAN........................
Jaiotze data........................ K/K zenbakia........................

...eta kitto!
Euskara Elkartea

**Urkizu 11**
943 20 09 18 - 943 20 67 76
elkartea@etakitto.eus

Bazkidetza edo ekarpenak egiteko

| NORK | EKARPENA | ERRENTAN ITZULKETA | BENETAKO KOSTUA |
|---|---|---|---|
| Umeak (16 urtetik beherakoak) | 5 € | 1,5 € | 3,5 € |
| Ikasle, langabetu, jubilatuak | 15 € | 4,5 € | 11,5 € |
| Langileak | 45 € | 13,5 € | 31,5 € |
| Beste ekarpen batzuk | 150 € | 45 € | 115 € |

# Iragarki laburrak

688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

**Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.**

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA
2.1. Salgai

3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan

4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Etxea hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-141454.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-486770.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi malgua. Tel. 632-044001.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta mendian edo eraikuntzan lan egiteko. Tel. 662-415709.
- Mutila eskaintzen da pintore lanak egiteko. Tel. 602-108724.
- Neska eskaintzen da uztailean eta abuztuan umeak zaintzeko. 649-025614.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 632-776998.
- Neska euskalduna eskaintzen da uztailean umeak zaintzeko. Tel. 610-395225.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 643-278344.
- Neska euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak zaintzeko. Tel. 665-733162.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 602-800266.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 634-437852.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, mendian edo baserrian lan egiteko eta eraikuntzan jarduteko. Tel. 602-188264.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 631-470600.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 638-963048.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 688-735551.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordutegi malgua. Tel. 632-629130.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-647267.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo paseatzeko. Tel. 629-817299.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 645-248040.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordutegi malgua. Tel. 602-552748.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Tel. 612-476128.
- Emakume euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 669-243901.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 625-287229.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 635-953329.
- Neska euskalduna eskaintzen da ekainean eta uztailean umeak zaintzeko. Tel. 688-666220.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zainzteko eta garbiketak egiteko. Tel. 642-604495.
- Gizona eskaintzen da garbiketak egiteko, tailerrean jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 678-375330.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. Esperientzia eta ziurtagiriak. 602-353585.
- Mutila eskaintzen da igeltsero moduan, garbiketak egiteko eta abar. Tel. 666-101558. Menlya.
- Mutila eskaintzen da eraikuntzak lan egiteko, garbiketetarako eta abar. Tel. 687-141217.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, tabernetan lan egiteko eta garbiketetarako. Tel. 677-136446.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Erreferentziekin. Tel. 671-330459.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 689-003537.
- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 685-386485.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-108345.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 5 urteko esperientzia. Tel. 662-045996.

### 4.2. Langile bila

- Asteburorako zerbitzaria behar da mahaiak zerbitzeko. Esperientziarekin. Tel. 620-810120.
- Emakumea behar da ume txikia zaintzeko irailetik aurrera. Baita gauez ere. Externa. Tel. 669-780187.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- LH, DBH, Batxilergo eta selektibitaterako klase partikularrak ematen dira. Aurrez-aurre zein on-line. Tel. 678-937827 eta 943-584166.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestakuntzako ikasleei. Antzeko ezaugarriko 4 laguneko taldeak gehienez. Gainditu dutenen indize handia. Urte askotako esperientzia. Tel. 615-705945..
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Denda-abanzea salgai. Camper markakoa. 75 euro. Tel. 695-708100.

688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus



## Yoga espazio berria Eibarren

OSASUN FISIKOA,
OREKA EMOZIONALA ETA
ADIMENAREN KONTROLA

ARRETA
PERTSONALIZATUA

lore yoga STUDIO

Errebal kalea 15, Eibar
**T. 943 849 310**
@loreyogamas
@helmethousestore
**hello@helmethouse.es**



**Apalategi, 4**
20600 EIBAR
Tel: +34 943 70 70 50

mail@industriasmail.com
www.industriasmail.com







## EBAKITZEKO ERREMINTA BEREZIAK

Mail

Erabateko zehaztasuna - Akabera perfektuak
Irtenbide bereziak - Enpresa Liderraren bermea


bista eder
clinica dental - hortz klinika
Hurrengoan elkarrekin
ospatuko dugu!
Gora San Juanak!
www.bistaeder.es
bista eder, 19
943 70 00 82
bistaeder_clinicadental